

Gipuzkoako elkarteen azterketa kuantitatiboa, 1887-1936. El asociacionismo legal en Gipuzkoa¹

(Legal associationism in Gipuzkoa, 1887-1936)

Aizpuru Murua, Mikel

Euskal Herriko Unib. Filologia, Geografia eta Historia Fak. Garaiko
Historia Saila. Unibertsitatearen Ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz
hcpaimum@vc.ehu.es

Jaso: 07.03.2003

BIBLID [1136-6834 (2003), 33; 29-48]

Onartu: 17.10.2003

Komunikazio honen helburua 1887an, Elkarteen legea onartu zenetik 1936 arte Gipuzkoan zenbat elkarte sortu ziren eta zer-nolako ezaugarriak zituzten arakatzea da. Horretarako bi iturri erabili ditut: Aldundiko agiritegia eta Bailly-Balliere Anuarioa. Bilketak zera erakusten digu, 1.800 elkarretik gora sortu zirela. Komunikazioan multzo garrantzitsu honen azterketa egiten dut, elkarte mota, sortze-data, sortutako herria eta biztanle-kopurua, izen-mota, bazkideak, eta abar erabiliz aldagai moduan.

Giltza-Hitzak: Elkarte. Soziabilitatea. Gipuzkoa. 1887-1936. Politika. Kirola. 1887ko legea.

El objetivo de la presente comunicación es investigar el número de asociaciones que se crearon en Gipuzkoa desde que en 1887 se aprobara la Ley de Asociaciones hasta 1936 y las características de las mismas. A tal efecto se han utilizado dos fuentes: el archivo de la Diputación y el Anuario Bailly-Balliere. Los datos obtenidos nos muestran que fueron creadas más de 1.800 asociaciones. En la comunicación se procede a un análisis de este importante conjunto, utilizando variables tales como el tipo de asociación, fecha de fundación, localidad en que se crea y número de habitantes, tipo de denominación, socios, etc.

Palabras Clave: Sociedad. Sociabilidad. Gipuzkoa. 1887-1936. Política. Deporte. Ley de 1887.

Le but de cette communication est de rechercher le nombre d'associations, et leurs caractéristiques, qui furent créées en Gipuzkoa depuis que fut approuvée la Loi d'Associations en 1887, jusqu'en 1936. A cet effet, deux sources ont été utilisées: les archives de la Députation et l'Annuaire Bailly-Balliere. Les données obtenues nous apprennent que plus de 1.800 associations furent créées. Dans cette communication on procède à une analyse de ce nombre important d'associations, en utilisant des variables telles que le type d'association, la date de fondation, la localité dans laquelle elle fut créée et le nombre d'habitants, le type de dénomination, de membres, etc.

Mots Clés: Société. Sociabilité. Gipuzkoa. 1887-1936. Politique. Sport. Loi de 1887.

1. Ikerketa hau Luis Castells-ek zuzentzen duen EHuko 9/UPV 00114.114-134655/2001 Ikerketa Talde Kontsolidatuaren barruan egin da. Datu-basearen prestaketan Olatz Bravoren laguntza izan dut.

1. SÍNTESIS

La presente comunicación analiza el desarrollo cuantitativo del mundo asociativo guipuzcoano entre la aprobación de la Ley de Asociaciones de 1887 y 1936 y se basa en la explotación de los datos depositados en el Archivo General de Guipúzcoa, completados con el Anuario General de España Bailly-Balliere-Riera; no tiene, por lo tanto, un carácter exhaustivo. Las principales conclusiones del estudio son las siguientes:

1. Hay un creciente y alto número de asociaciones en Guipúzcoa, 1881 para el periodo en su conjunto.

2. Existe una correspondencia entre número de habitantes por localidad y número de asociaciones (1^o laukia), pero si aplicamos un índice de dispersión (2. laukia), son algunas poblaciones rurales de pequeño tamaño y la villa de Tolosa las que ofrecen un menor grado de dispersión. Poblaciones de voto nacionalista o tradicionalista en muchos casos.

3. Destaca el alto número de asociaciones orientadas al ocio, al mutualismo y las relacionadas con el mundo religioso (1^o grafikoa), seguidas a cierta distancia con las que manifestaban un objetivo político o la defensa de la clase. Entre aquellas que expresaban un carácter político sobresalen las nacionalistas, seguidas de las carlistas y las republicanas (3. laukia).

4. El análisis de los nombres utilizados por las asociaciones (4. laukia) reflejan la importancia, por un lado, de los términos obrero y sindicato y, por otro, de los más neutros como sociedad, círculo, club, asociación, unión, centro, etcétera. Sólo 45 sociedades subrayan el carácter femenino de sus componentes. Hay un creciente peso de las que utilizan nombres o topónimos euskéricos en su denominación.

5. El nuevo marco legal, que no era tan permisivo como frecuentemente se afirma, no tuvo consecuencias inmediatas en el desarrollo asociativo (3. grafikoa). El crecimiento del movimiento sólo es destacable desde mediados de la primera década de 1900, alcanzando su máximo en 1919. Si en los primeros momentos el ritmo de fundaciones de sociedades en San Sebastián sobrepasaba al resto de la provincia, conforme pasaron los años, la tendencia fue la opuesta (4. grafikoa).

6. Si el desarrollo del mundo asociativo es una muestra de la modernidad de un determinado territorio, en la medida en que las sociedades se basan en la adhesión voluntaria de sus miembros, frente a la "lealtad natural" de los lazos sociales de las sociedades tradicionales (familia, vecinos, trabajo, religión), la Guipúzcoa de los años republicanos puede calificarse sin reparos como una sociedad moderna. Ahora bien, la riqueza y complejidad de su mundo asociativo nos revelan el peso de numerosos elementos tradicionales. Por ello, frente a una lectura simplista e interesada de la división "Comunidad/asociación" planteada por Tönnies, hay que concluir que Guipúzcoa, como todas las sociedades moder-

nas, es el producto de la mezcla de elementos comunitarios y asociativos bajo distintas formas.

2. SARRERA

Eusko Ikaskuntzaren Historia Sailaren Tokiko Historiako Jardunaldietara aurkeztutako komunikazio honek oso helburu zehatzak ditu: 1887an, Espainiako Gorteek elkarteen legea onartu zutenetik 1936ra arte Gipuzkoako lurraldean zenbat elkarte sortu ziren eta zer-nolako ezaugarriak dituzten arakatzea. Historialari askoren ustez, XIX eta XX. mendeetako Espainiak ez zituen elkarte-sare zabala sortzeko baldintzak betetzen. Alde batetik, botere publikoak mesfidati erreparatzen ziolako kontrolatzen ez zuen edozein agerraldi kolektibori; eta, bestetik, esparru publikoa garrantzirik gabeko gunen moduan hartzen zenez, norbanakoen interesak familiara eta hurbileko lagunetara mugatzen zirelako (PEREZ, 1987, 11). Azken urteetako ikerketek, ordea, bestelako ikuspegia erakutsi dute. Iturri berriak erabili izanak historialariontzat ezkatututa egon den errealitate aberatsa azalera du eta elkarte bizitzaren oparotasuna agerian utzi digu.

3. IKERKETAREN MUGAK

3.1. Legeak ezarritako eredia

Prohibir las reuniones pacíficas ha sido en todos tiempos señal distintiva de los Gobiernos despóticos. Horrela hasi zuen 1868n Sagasta ministroak batzar baketsuak egiteko eskubidea onartzen zuen dekretua. Oso bestelakoa zen, 1875ean Romero Robledok ministroak zabalduzako agindua:

El Ministerio (...) se propone respetar todos los derechos políticos en cuanto sea compatible su ejercicio con el orden público y con las instituciones que forman la esencia de nuestro régimen actual. Entre estos derechos figuran el de *reunión* y el de *asociación* como todos son siempre limitables, y más aún en las presentes circunstancias...

Gerra karlistari buruz ari zen politikari kontserbadorea, baina beste bost urte geroago, berriro batzar baketsuak egiteko eskubidea arautu zuenean, baldintzek nahiko estuak izaten jarraitzen zuten. Nahiz eta legezko elkartei askatasun osoa eman bilera beren egoitzetan egiteko, batzarra kalean edota toki publikoetan egin nahi baldin bazen, agintarien idatzizko baimena behar zen aurretiaz eta agintarien ordezkariak bertan egoteko eskubidea zuen, baita batzarra bertan behera uztekoa ere². Izan ere, 1876ko konstituzioak bere 13. artikuluan elkarrezeko eta biltzeko eskubidea onartu zuen, baina 17.ak eskubide horiek eta beste batzuk bertan behera uzteko ahalmena eskaintzen zion gobernuari. Agerian

2. MARTÍNEZ ALCUBILLA, M. (1885): *Diccionario de la Administración española y compilación de la Novísima Legislación de España*, Madrid.

geratzen da, beraz, agintariek mesfidantzaz begiratzen zutela elkarteen mundua, eta ez zutela gogo berezirik horien garapena bultzatzeko. 1886an Alderdi Liberalak elkartzeko eskubidea arautzen zuen legea bultzatu zuenean zegoen giroa arestian deskribatutakoa zen.

Legea 1887ko ekainean onartu zen, eta ez zion muga handirik jartzen elkarteen sorrerari. Elkarteak sortu nahi zutenek Gobernadore Zibilaren esku utzi behar zuten elkartearen araudia, izena, helburua, helbidea, zuzendaritzaredua eta baliabide ekonomikoak. Gobernadoreak bertan behera utz zezakeen elkartearen sorrera, baina epaile baten oniritzia behar zuen hogeitau eguneko epearen barruan. Azken baldintza betetzen ez bazen, elkarteak bere bidea has zezakeen. Edozein kasutan, gobernadoreek arreta handiaz jarraitu behar zuten elkarteen ibilbidea. Elkarte batek ohizko bilera egin nahi zuenean, Gobernadore Zibilari edota alkateari adierazi behar zion, eta, ezohizkoa zenean, ordezkari bat bertara bidaltzeko eskubidea zuten agintariek. Are gehiago, agintariek edozein unetan elkarte batean sartu eta bertan egiten ari ziren bilera bertan behera uzteko eskubidea zuten, bileraren helburuak zilegiak ez zirenean. Beraz, nabarmena da elkartzeko eskubidea arreta handiaz begiratzen jarraitzen zutela gobernuek. Ondorengo gobernuek, gainera, eskubide hori mugatzen zituzten zenbait agindu argitaratu zituzten. Horien artean dugu 1906ko *Ley de Jurisdicciones*-a, aberriari eta armadari egindako irainak zigortzeko asmoz idatzitakoa, elkarteak desegiteko aukera planteatzen zuelako. Primo de Riveraren garaian Konstituzioa bertan behera gelditu zen, eta elkarteekin lotutako arazoak Segurtasunerako Zuzendaritzaren esku utzi ziren. Errepublikako urteetan ez zen lege-aldaketa handirik egon. Konstituzioak elkartzeko eskubidea onartzen zuen, baina zehaztasun berririk gabe (FLAQUER, 1999).

3.2. Elkarte legalak elkarte munduaren zatia

Txosten hau elkarte legalen azterketara mugatzeak ez du esan nahi ukatu egiten dugunik bestelako elkarteen presentzia eta garrantzia. Hautaketa metodologiko bat baino ez da, komunikazioak izan beharreko luzerak eta erabilitako iturrien mugak ezarritakoa. Elkarte asko legeak finkatutako esparrutik kanpo zegoen. Lau eredu dira hemen nabarmendu nahi ditudanak. Lehena legeen aurkako edota legezkanpoko elkarteek osatzen dute. Espainiako legeek, ikusi dugunez, legez kanpo uzten baitzituzten ideologia jakin batzuetako erakundeak, errepublikarrak eta anarkistak hasieran; azken horiek, gainera, ez zuten onartzen legeek finkatutako urratsak jarraitzea. Ez da harrizkoa, beraz, gure zerrendan elkarte anarkista bakarra azaltzea eta gainera izen hori erabili gabe.

Elizaren eta erlijio katolikoaren inguruko elkarteek osatzen dute, neurri batean, gure azterketatik kanpo geratzen den bigarren multzoa. Hutsune hori are garrantzitsuagoa da kontuan badugu industrializazioaren aurretik eta ondoren, Elizak bultzatutako elkarte ugariaren sorrera. 1887ko legeak hiru erlijio-elkarte bereizten zituen, Eliza Katolikoarekin sinatutako Konkordatuan onartutakoak,

elkarte katolikoak eta elkarte ez katolikoak. Azken bi taldeek 1887ko legearen arauak errespetatu behar zituzten. Aurrerago ikusiko dugunez, erlijio-elkarteek pisu esanguratsua dute Gipuzkoako elkarteen artean, baina asko falta direla pentsatzen dut. Izan ere, alde batetik, Eliza Katolikoa berrindartzearekin sortutako elkarte asko faltako lirateke, besteak beste, San Luis Gonzaga, Mariaren Alabak edo Acción Católica. Bakar batzuk baino ez dira azaltzen gure zerrendan. Beste kasu batzuetan, Bizkaian esaterako, ezaguna da Errepublikako urteetan garapen garrantzitsua izan zutela (AIZPURU, 1999) eta ez dirudi Gipuzkoan kontrakoa gertatuko zenik.

Bada Elizarekin harreman estua duen beste erakunde bat: kofradia. Erakunde horren funtzioak ekonomikoak (herri-lurren eta bideen zainketa eta konponketa), sozialak (kideen ongizatea) eta erlijiosoak, (ermiten zainketa eta mezen ospakizuna), ziren (ARREGI, 1984). Ez da horrelako bat bera ere aipatzen gure zerrendan. Nekazari munduan ere garrantzi handia zuten beste elkarte batzuk daude: suaro eta ermandadeak, suak sortutako kalteei eta ganaduen galerari aurre egiteko asmotan sortutakoak (POSSE, 1914, 43). Gutxi dira elkarteen errol-dan agertzen zaizkigunak, nahiz eta, agian, Alkartasuna sindikatuek funtzio horiek ordezkatu.

Gure azterketatik kanpo geratzen da, azkenik, gazte elkarteen eremua. Ezaguna da XX. mendeko aurreneko hogeita hamar urteetan gazte-taldeek garapen izugarria izan zutela, eta gure lanean badira horren adibide batzuk. Baina ez dira elkarte horiek hemen aipatu nahi ditudanak, herri eta auzoetako festa eta jaialdiak antolatzeke era erdi formalean sortutako taldeak baino (LARRINAGA, 2001). Beraien izaeragatik ez dute izaera legalik eta, beraz, errol-detatik kanpo daude.

3.3. Iturriak

Berez, eta legeak agintzen zuenaren arabera, elkarte berri guztiek Gobernu Zibilari jakinarazi behar zioten beren asmoa, sortzaileen izenak eta elkartearen araudiaren bi kopia igorri. Gobernu Zibilak onartuz gero, elkartearen izena eta oinarrizko datuak errolda-liburuan idazten ziren. Gipuzkoako Gobernu Zibilaren agiritegiak, ordea, garai honetako liburu bat baino ez du gordetzen, 1931koa, hain zuzen, eta bertan aurreko garaiko elkarte batzuk baino ez daude (LUENGO; 1999, 111). Baina, zorionez, hutsune hori betetzeko beste bide batzuk ditugu. Garrantzitsuena Gipuzkoako Aldundiko Agiritegiak eskaintzen digu. Izan ere, 1900. urtean Aldundiaren Probintzia Batzordeak zerga berri bat hitzartu zuen Espainiako Ogasun Ministerioarekin. Horren helburua kasino eta aisialdi-elkarteek ordaintzen zuten errentaren %20 jasotzea zen. Langile elkarteak eta irakaskuntza eta ongizatea helburu zutenak ordainketatik kanpo geratzen ziren. Zerga hori biltzeko Gipuzkoako Aldundiak probintziako elkarteen zerrenda osatu zuen, ziur aski Gobernu zibilari informazioa eskatuz, eta alkateek emandako berriekin osatuz. Beraz, Gipuzkoako elkarteen zerrenda osatzeko informazioa lortu ahal izan dugu zerga horri esker.

Erabili dugun bigarren iturria Bailly-Balliere-Riera argitaletxeak zabaltzen zuen Anuario General de España urtekaria izan dugu. Ezaguna da azken urte hauetan argitalpen horren oparotasuna eta garrantzia hainbat informazio biltzen zituelako, besteak beste, udalerrri bakoitzeko elkarteen zerrenda eskaintzen zuelako (GEAS, 1998, 21-26). Lan honetarako 1934ko alea erabili dut. Baina, nire ikerketak ondo azaleratuko ditu bere mugak. Eta horren adibidez kasu bakar bat aipatuko dut, Tolosakoa. Anuarioaren arabera Tolosan 16 elkarte, 19 erlijio-talde eta 6 kirol-elkarte zeuden, 41 guztira. Baina, neuk bildutako datuen arabera, 132 talde antolatu zeuden Gipuzkoako hiriburu zaharrean.

Nahiago izan dugu lan hau osatzeko beste iturririk ez erabiltzea. Posible genuen, noski, beste iturri batzuetara jotzea, Archivo Histórico Nacional-era adibidez edota Instituto de Reformas Sociales-ek argitaratutako erroldetara, baina ezagunak dira dituzten hutsune eta gabeziak (GUEREÑA, 1989). Alde batera utzi ditut, era berean, prentsa edota bibliografiari esker lortutako erreferentziak, arlo jakin batzuetako elkarteen berri baino ez dute ematen eta³. Era horretan, azterketak desoreka arriskutsuak jasotzeko aukera zuten.

4. IKUSPEGI OROKORRA

Arestian aipatutako iturriak erabiliz era guztietako 1881 elkarte desberdin bildu ditugu. Hurrengo lerroetan talde horien ezaugarri nagusiak azalduko ditut. Lehena udalerrrika duten banaketa dugu. 1930ean Gipuzkoan 89 udal genituen eta, jasotako datuen arabera, horietatik 18 baino ez ziren elkarte bakar bat ere ez zutenak, %19 (Ikusi eranskina). GEAS taldeak proposatutako *Sakabanatze-graduak*, hots, biztanleria elkarte-kopuruarekin zatitzeak, ederki azaltzen du lurraldeak bizi izandako aldaketa. Horren arabera, 1895ean 72 ziren baldintza berdinetan zeuden herriak, %79,1. Orduko indizea 4,7 zen, 1936koa 1,2 zen. 1895ean Espainia osoan indize baxuena zuen probintzia Cádiz zen, 1,5. Aldaketa are nabarmenagoa da kontuan hartzen badugu 1900. urtean Gipuzkoak 195.850 biztanle zituela eta 1930ean 302.329. Hots, biztanle kopurua % 54 baino ez zen igo eta elkarteena 60 aldiz biderkatu zen. Datu horiek, bestalde, zera adierazten dute, biztanle gehien zituzten Gipuzkoako udalerrriak zirela elkarte gehien zituztenak:

3. Iturri horiek eskain dezaketen informazioaren adibide bat: 1936an Euzko Nekazari Bazkunak 68 elkarte omen zituen Gipuzkoan, horietatik 31k egoitza fisikoa omen zuten gainera. AHN Salamanca, Bilbao GE 18/8. Gure zerrendan bakarra sartu dugu.

1. Laukia

GIPUZKOA	1930ko biztanleria errolda	Elkarte kopurua
Donostia	78.432	573
Tolosa	12.487	132
Irun	17.670	124
Eibar	12.874	104
Pasaia	7.519	67
Errenteria	8.973	64
Arrasate	7.720	55
Hernani	6.282	54
Azpeitia	7.848	41
Bergara	9.307	37
Beasain	5.260	34
Azkoitia	7.557	30
Elgoibar	5.239	27
Zarautz	4.786	27
Andoain	3.710	26
Hondarribia	6.181	26
Oñati	6.662	26
Zumaia	3.144	25

Donostia dugu elkarte gehien duen udalerrria; Gipuzkoako biztanleriaren %25,8 zuen eta elkarteen %30. Hiriburuaren barruan, ordea, elkarteen kokapena ez zetorren bat biztanleriaren banaketarekin, Alde Zaharrean kontzentratzen baitzuen elkarte-kopuru handiena, ia-ia guztien erdia⁴. Gauza jakina da, biztanleria-kopurua gorabehera, hiriburuak, erraztasuna zutela herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialean eta bereziki, gizarte klase berrien osaketa eta sendotzean. Hiriburua zen, gainera, iritzi-korrante berriak ikusten zuten lehen gunea, eta horren ondorioa zen era desberdinetako elkarteen agerpena. Donostiako kasuan elkarte horiek, bereziki gastronomikoeak, pisu nabarmena izan zuten hiriaren nortasun berria osatzeko eta zabaltzeko.

5.000 biztanle baino gehiago zituzten herrietatik Altza zen 25 elkarte baino gutxiago zuen bakarra. Andoain eta Zumaia ere, 3.000 biztanle inguru eduki arren, talde honetan sar daitezke. Elkarte bakar bat ere ez zuten herriak beti ziren 500 lagun baino gutxiagokoak. Badirudi, beraz, lotura zuzena dagoela hiritartzearen eta elkarteen sorreraren artean. Baina, lehen aipatu dugun sakabatatze-indizea erabiltzen badugu, ezberdina da ikuspegia:

4. Donostiako elkarteen, eta, orokorrean, soziabilitatearen azterketa zehatza, (LUENGO, 1999).

2. Laukia

GIPUZKOA	Soziabilitate indizea
Elgeta	55,38
Irura	64,87
Leintz-Gatzaga	78,80
Tolosa	94,59
Billabona	104,44
Pasaia	112,22
Hernani	116,33
Orio	120,37
Itsasondo	122,33
Eibar	123,78
Alegia	125,11
Soraluze	125,29
Zumaia	125,76
Zumarraga	130,52
Donostia	136,87
Legorreta	137,00
Errenteria	140,20
Arrasate	140,36
Irun	142,50

Indize horren arabera 1.000 biztanle baino gutxiagoko hiru herrik osatzen zuten zerrrendaren burua. Are gehiago, Rodríguez Ranzek proposatutako banaketa onartzen badugu (RODRIGUEZ RANZ, 1994, 38-39), Elgeta eta Gatzaga *Microguipúzcoa rural* esparruan kokatu behar ditugu. Tolosa da bere biztanleriari dagokion postua betetzen duen udalerrri bakarra, Gipuzkoako laugarren hiria izanik, biztanleriari eta elkarte-kopuruari dagokionez. Alde horretatik ondo beteko luke Agulhonen baieztatutakoa hots, soziabilitate egokiena erdi mailako hirietan gertatzen dela, hiri handiak inpersonalegiak direlako, eta nekazari herriak txikiegiak (MAURICE, 1989, 138). Ondoren *Guipúzcoa urbanako* beste hiru herri ditugu, Billabona, Pasaia eta Hernani eta horien atzetik erdi-mailako herriak ditugu. Donostiak, 573 elkarte zituen eta 15. postua baino ez du betetzen; lurraldeko bigarren hiria, Irun, 19.ean azaltzen da. Ez dirudi, beraz, maiz irakurtzen ditugun baieztape batzuk oso zuzenak direnik. Hala nola, nekazari-inguruan atzeratuta eta aldaketa gutxirekin bizi zirela, hirietan elkarte-mundua bizi-bizia zen bitartean. Antzeko zerbait gertatzen da, elkarte-munduaren garapena jarrera politiko edo ideologiko jakinekin lotzen denean. Hots, elkarteen garapena ezkerreko indarren ondorio zirela esan denean. Arestian aipatutako 19 herri horietatik 13tan zen nagusi abertzaletasuna, eskuina batean (Tolosan) eta ezkerreko indarrak Pasaia, Hernani, Eibar, Donostia eta Irunen.

5. ATALKAKO AZTERKETA

5.1. Elkarteen ereduak

1887ko legearen helburua elkartzeko eskubidea arautzea zen. Bertan esaten zenez, bere arauen menpe gelditzen ziren:

Art. 1º...las asociaciones para fines religiosos, políticos, científicos, artísticos, benéficos y de recreo ó cualesquiera otros lícitos que no tengan por único y exclusivo objeto el lucro o la ganancia.

Se regirán también por esta ley los gremios, las Sociedades de socorros mutuos, de previsión, de patronato y las cooperativas de producción, de crédito o de consumo.

Art. 2ª Se exceptúan de las disposiciones de la presente ley:


1º Las asociaciones de la Religión Católica autorizadas en España por el Concordato.

Las demás Asociaciones religiosas se regirán por esta ley, aunque debiendo acomodarse en sus actos las no católicas a los límites señalados por el art. 11 de la Constitución del Estado⁵.

Lege xedapen honek, beraz, elkarte-ereduen lehen sailkapen bat eskaintzen du. Badira beste batzuk. GEAS taldeak, adibidez, nahiago izan du elkartearen izenari estuki lotzea. Gure kasuan, banaketa bikoitza egin dugu. Lerro hauetan elkarteak betetzen zuen funtzioa izan dugu kontuan bere sailkapena finkatzeko. Hurrengo atalean izenari erreparatuko diogu.

11 dira antolatu ditugun taldeak eta, maiz, elkarte bat sail batean baino gehiagotan agertuko zaigu. Izan ere, elkarteen bizitzaren ezaugarrietako bat funtzio des-

1. Grafikoa



5. MARTÍNEZ ALCUBILLA, M. (1914): "Diccionario de la Administración española y compilación de la Novísima Legislación de España", Madrid. 1 13. or. (*Gaceta de Madrid* 12-7-1887).

berdinak bete ditzakeela da, eta ez dagoela muga esturik eredu desberdinen artean (MAURICE, 1989, 143). Lehen taldea, handiena elkarte-kopuruaren arabera, *aisialdia* helburutzat duten elkarteek osatzen dute, ia 500 elkarterekin. Baina kopuru hori zabal daiteke kontutan hartzen bada politika-arloan sartu ditugun erakunde gehienek beste funtzio batzuk ere bazituztela, nahiz eta askotan ez gustatu horrela agertzea. Zehatzago esanda, politikaz hitz egiteaz gain (RUJULA, 1997), edaritegiak, karta-jokoak, mendi-irteerak, kirol-saioak, dantzaldiak, eta abar antolatzen zituzten, Casa del Pueblo, Círculo Republicano, Círculo Tradicionalista eta batzokiek.

Bigarren taldea, *laguntza* izenburupean, funtzio nagusia bazkideen ongizatea ziurtatzea duten elkarteek osatzen dute. Ganaduaren gaixoardiari, sute bati edo gaitasunein aurre egiteko, edota elbarritasun- edota heriotza-gastuak estaltzeko sortutako elkarteak genituzke. Horrelako elkarteen *urrezko garaia* XIX. mendea izan zela maiz aipatu izan bada ere, ditugun datuen arabera, 1916 eta 1922 bitartean kokatu behar dugu, tarte horretan sortu zelako elkarte-kopuru handiena. Alde horretatik mutualismoa artean bizirik zegoen gizarte-fenomenotzat hartu beharrean gaude, eta ikuspegi horretatik, bereziki klase herritarren sozializazio-prozesuan eragin zuzeneko. Bestalde, alde hori da zabalkunde uniformeena zuena, 66 herritan dugulako laguntza-elkarteren bat, aisialdi-elkarteak eta politikoak 57 eta 62tan ordea.

Hirugarren taldean *Erljioa*-rekin lotutako elkarteak bildu ditugu. Bertan sartu ditugu espreski elkartearen izaera katolikoa azaltzen duten elkarteak, edota beren deituran santuren baten izena duten elkarteak. Horren arabera, *Elgoibarko Círculo Católico Elgoibarko Batzokia* hemen sartu dugu, baina ez *Eibarko Batzokia*, biek antzeko helburua eta izaera eduki arren. Ez ditugu sartu, aldiz, *Alkartasuna* nekazari-sindikatuak, apaizek sortutakoak edota zuzenduak izan arren. Ezaguna da, apaizek pisu handia izan zutela elkarte askoren sorreran, mutuen eta kooperatiben sorreran, besteak beste, eta ez bakarrik Euskal Herrian (SOLA, 2001, 282). Lehen aipatu dugunez, erlijioarekin lotutako elkarteak neurri handi batean berriak dira. 1890etik aurrera, *Rerum Novarum* entziklikarekin, Eliza Katolikoak elkarte mundua bultzatzeko ahaleginak aholkatu zituen (SALOMON, 2000, 506). Horren ondorio dira XX. mendean sortutako elkarteak; bi eratakoak: elkarte katoliko hutsak, (aisialdi funtzioarekin), eta langileen babeserako sortutako elkarteak, (sindikatuak, patronatuak eta abar). Lehenagoko eredu erlijiosoen aurrean, eredu berriek eliztarak ekintzarako bildu eta antolatzeko asmoa erakusten zuten (FULLANA, 1994).

Laugarren taldean, *politika* xede nagusitzat duten erakundeak bildu ditugu, alde batera utzita xede hori bigarren mailan edo ezkutuan duten taldeak. Horrela, Donostiako *Círculo Integrista* erakunde politikotzat hartu dugu, baina ez egoitza berean zuten *Caja de Socorros*-a. Politizatu gabeko gizarte bati dagokionez, ez ziren asko izaera politikoa zuten elkarteak, baina bai uste baino gehiago, 293 guztira. Hiru datu dira, nire ustez, azpimarratu behar direnak. Lehena, abertzaletasunaren nagusitasuna; abertzaleen inguruko Batzoki, Euzko Etxe, Emakume Abertzale Batza eta Euzko Langileen Alkartasunak 139 elkarte osatu zuten, 1904an lehena sortu zenetik. Bigarrena, errepublikarren azpiegitura zabala, bereziki Errepublikaren urteetan. Eta hirugarrena, ezkutuan geratzen dena. Hots, ez dagoela lotura zuzenik elkarteen garapenaren eta alderdi bakoitzaren hauteskunde-indarraren artean. Horren lekuko dugu indar monarkikoen egoitzen urritasuna baina baita beren gai-

tasuna Berrezarkuntza garaiko hauteskundeak behin eta berriz irabazteko. Antzeko zerbait esan daiteke karlistei buruz. Hain handia zen, zenbait herritan zuten indarra mende hasieran bereziki, ezen ez zitzaien beharrezkoa elkarte formalak sortzea. Kontrako kasua izan daiteke sozialistena. Hemen zuzenean beren burua sozializatzen duten elkarteak baino ez ditugu hartu. Sindikatuen artean asko ziren PSOE-rengandik hurbil zeudenak, baina zaila da lotura hori era zehatzean identifikatzea.

3. Laukia

Atxikitze politikoa	Kopurua
Abertzalea	134
Karlista	55
Errepublikarra	44
Sozialista	29
Monarkikoa	21
Integrista	9
Foruzalea	1

Bosgarren taldeak, *defentsa*, langile-erakundeak biltzen ditu, baina ez guztiak. Klase izaera edota langileen interesak defendatzeko asmoa azaltzen zutenak dira multzo honetan hartu ditugunak. Baita beren izenean sindikatu hitza duten erakunde guztiak. Badakigu, kasu batzuetan, sindikatu katolikoak adibidez, oso eztabaidagarria dela erakunde horiek benetako sindikatu baten funtzioa betetzen ote zuten, baina orrialde hauek ez dira horretaz jarduteko tokirik egokiena. 27 herritan dago horrelako erakunderen bat. Seigarren taldean kirol elkarteak bildu ditugu. Elkarte-mota honek hazkunde motela izan zuen mendearen lehen hamarkadan, hazkunde interesgarria erakutsi zuen bigarren hamarkadan eta izugarria 1922-25 urte tartean, (epe horretan urtero 20 elkartetik gora sortu ziren). 36 herritan ditugu kirol-elkarteak. Enpresari, dendari, tabernari eta antzeko ugazaben elkarteak bildu ditut *enpresa* multzoan. Zerbait nabarmentzekotan zera aipatuko nuke: gremioen oroimenak duen pisua, 120 elkartetik 50ek hitz hori erabiltzen dute beren burua definitzeko orduan.

Hezkuntza taldeak multzo anitza biltzen du bere baitan, oso helburu desberdineko elkarteak sartu behar izan baititugu bertan: *Eusko Ikaskuntza*, *Sociedad Oceanográfica*, *Institución de la enseñanza libre-racionalista* eta Ateneoren moduko elkarteak, baina baita familia gurasoen elkarteak, langileen taldeen antzerki-taldeak edo sindikatu katoliko batzuk, beren bazkideen prestakuntza hobetzea dutelako helburutzat. 77 kooperatibek osatzen dute hurrengo multzoa. Bertan biltzen dira etxebizitza merkea lortzeko osatutakoak (7), kreditu-kooperatibak (5) eta, gehiengo zabala osatzen duten kontsumo kooperatibak eta ekonomatoak. Datu bat azpimarratuko dut, Deba Goienan elkarte-eredu honek duen pisua; bailarako herri guztiek dute gutxienez kooperatiba bat eta 7 Arrasatek. Badirudi, beraz, frankismo-garaiko fenomenoak bazuela aurrekaririk. Musika-elkarte, orfeoi eta bandak bildu ditugu hurrengo multzoan eta ingeniari, arkitekto, sendagile eta abarren elkarteak azkenekoan.

5.2. Elkarteen izenak

Azterketa egiteko erabili dugun beste bide bat elkarteen izen zehatzari erreparatzea izan da. Hemen ere posible da elkarte bat multzo batean baino gehiagotan azaltzea.

4. Laukia

Sociedad	160
Círculo	105
Club	101
Asociación	99
Unión	97
Centro	84
Lagun, fraternidad, amistad, denok	76
Deportivo	53
Juventud, gazte	49
Casino	47
Federación	26
Obrero	226
Sindicato	162
Mutualidad, montepío, socorros mutuos	97
Agrícola, labrador	55
Gremio	50
Cooperativa	40
Agrupación	35
Patronal	30
Hermanidad	19
Cofradía	18
Artesano	14
Propietario	14
Batzoki, Euzko Etxea, Emakume	87
Carlista, jaimista, tradicionalista	59
Republicano	46
Socialista, Casa del Pueblo	18
Liberal	17
Integrista	9
Ateneo	4
Conservador	3
Católico	119
Santuen izenak	109
Congregación	13
Emakume, femenino	45
Euskal izena	374
Euzko	75
Vasco	56
Español	14


Izenen azterketak aurreko atalean ateratako ondorioak berresten ditu, zenbait ñabardura gehituz. Gehien erabiltzen diren izenak *langile* eta *sindikatu* dira eta horrek bat egiten du elkarri laguntzeko erakundeek eta sindikatuek duten pisuarekin. Ondoren datorren multzoa aisialdiarekin lotutako terminoek osatzen dute: Sociedad, Círculo, Club, Centro, Deportivo, Casino modukoek. Zera azpimarra daiteke, azken eredu horrek duen kopuru txikia. Datu honek Gipuzkoako elkarteen modernitatea adierazten du, Kasinoek XIX. mendeko soziabilitatea ekartzen digulako gogora. Sorrera-data ezagutzen dugun kasu gehienetan kasinoak 1912 baino lehen sortu ziren (RUEDA, 2000, 54). Garrantzitsuak dira, gainera, kideen anaitasunari eta adiskidetasunari erreferentzia egiten dieten izenak, uni6n, lagun, denok, amistad, eta abar. Elkarte politikoen izenek bat egiten dute lehen aipatu dugun banaketarekin. Badaude, dena den, zuzenean alderdi politiko batekin lotu ez, baina, batez ere, ezkerreko ideiekin hurbiltasuna adierazten duten izenak: *La Humanitaria*, *la Llama*, *la Luz*, *La Internacional*, *la Fraternidad* eta abar.

Emakumeen parte hartzea ez da oso nabarmena, 45 elkartek baino ez dute aipatzen espreski emakumeenak direla, horietatik 5 mistoak dira, hots ogibide desberdinetako gizon eta emakumeak biltzen zituzten. Besteen artean erakunde katolikoan garrantzia azpimarratuko dut, Donostia eta Iruneko Nazareth sindikatuak eta elkarteak (14) eta beste herri batzuetakoak (sindikatu katolikoak (6) eta Mariaren Alabak (3)) emakumeak biltzen dituzten elkarteen erdia direlako. Gipuzkoako datu guztiak edukiko bagenitu ziur aski askoz gehiago izango ziren, gauza jakina baita Eliza Katolikoaren inguruko elkartean emakumeen parte hartzea oso zabala zela. Emakumeen elkartean multzoan dauden beste elkarte batzuk honako hauek dira: Emakume Abertzale Batzaren 10 talde, karlisten menpe dauden Margaritak (2), sozialista bat eta itxuraz inongo alderdirekin harremanik ez duten beste lau. Ezaguna da garaiko elkarte gehienak gizonezkoenak zirela eta askok emakumeen bazkidetza edota sarrera debekatzen zutela. Hiru dira, beraz, atera daitezkeen ondorioak. Lehena emakumeen parte hartze txikia elkartean munduan, %2,2 hain zuzen. Duten eremu murrizta, bigarrenik, erlijio, ongizate, karitate eta "emakumeenak" diren esparruetara zuzentzen direlako nagusiki; jostunenak, garbitzaileenak, zigarro-egileenak eta ehungintza arlokoenak dira emakumeak biltzen dituzten sindikatu gehienak. Autonomia-falta dugu hirugarren ondorioa. Izan ere, elkarte katolikoetan biltzen diren emakume gehienak apaizen (gizonezkoen) gidaritzapean daude.

Izenei dagokienez, garrantzi berezia eskaini izan nahi diet, azkenik, euskal izenak erabili dituzten elkarteei. Multzo honetan sartu ditut beraien izenean euskal esamoldeak, ("Gu gera", "danok bat", eta abar); euskal toponimoak, (Ordizi, Oarso, Usurbe) edota euskarazko erreferentziak, (Alkartasuna, Batzokia eta abar) erabili dituztenak. Guztira 374 erreferentzia bildu ditugu. Zenbait kasutan, 1900 eta 1925 bitartean adibidez, elkartearen sorrera-data ezagutzen dugu eta horri esker ikus daiteke euskal izenen erabileraren bilakaera. Lehen hazkunde garrantzitsua 1909 inguruan gertatu zen, elkarte abertzaleak sortzen hasi zirenean, eta gauza bera gertatu zen 1919an, lurralde osoan autonomiaren aldeko mugimendua berpiztu zenean. Edozein kasutan, ezin da abertzaletasunaren eta

euskal izenaren arteko lotura zuzenik egin. 374 elkarte horietatik abertzaletasunarekin lotura duten elkarteak 101 baino ez dira eta.

2. Grafikoa. Euskal izenak




Badago, aipatu nahi dudana beste kontu bat, administrazioa eta argialetxeen ardura edota ezagutza falta euskal izenak idazteko orduan. Muturreko adibide bat baino ez dut jarriko. Anuario General de España honako hau irakur daiteke “Exko-echea-Votroki”, Alegiako *Euzko-etxea-Batzokia* aipatu ordez.

5.3. Sorrera-data

Lehen aipatu dugun moduan, erabilitako iturriek muga ugari dituzte eta horietako bat, nahiz eta ez izan handiena, elkarten sorrerari buruzkoa da, 1925tik aurrera oso gutxitan ezagutzen baitugu elkartearen baten sorrera data. Ditugun datuek oso bilakaera adierazgarria erakusten digute.


3. Grafikoa. Sorrera data, 1887-1925



Espainiari buruz idatzitako zenbait lanetan, 1898 inguruan elkarteen sorrera nabarmena hazi zela aipatu izan da, baina gurean ez da horrelakorik ikusten. Gipuzkoako benetakoko garapena ez zen 1906ra arte hasi. Hazkunde garrantzitsu baten ostean, Lehen Mundu Gerrak jaitsiera nabarmena eragin zuen, gerra ostean berriro hazteko. 1920ko krisi ekonomikoak eta Primo de Riveraren diktadurak bilakaera hau oztopatu zuten, baina garapena erabat gelditu gabe.

Aurreko atal batean, elkarteen eta biztanleriaren arteko harremana aztertzean, nekazari-munduaren eta hiriaren artean ez dagoela mugarik esan dut. Elkar-teak noiz sortzen diren azertuz, baieztapen hori zehaztu beharra dago. Izan ere, Donostiako eta lurraldeko beste udalerrietako sorrera-erritmoa neurtzen badugu (hurrengo laukian ikusten da), ondorioa nabarmena da: 1916ra arte Donostiako indizea altuagoa da; 1917tik aurrera, ordea, kasu gehienetan, probintziako indizeak gainditu egiten du hiriburukoa. Denborak aurrera egin ahala, ohiturak eta portaerak hurbiltzen joan ziren, eskualde desberdinen arteko diferentziak murriz-tuz. Ez da Gipuzkoa prozesu hori bizi izan zuen inguru bakarra⁶.

4. Grafikoa. Sorrera-indizeak



5.4. Errenta

Gipuzkoako Aldundiko zerrenden helburua zergak biltzea bazen ere, datu gutxi ditugu elkarte bakoitzak ordaintzen zuen errentari buruz, 335 elkartena bai-no ez, %18. Normala denez, alde handiak daude batetik bestera, adibidez, Zes-toako *Euzko Langilleen Alkartasunak* edota Itsasondo Batzokiak ordaintzen zuten pezeta erditik Donostiako *Gran Casinok* ordaindutako 12.000 pezetara. Azken erakunde horrena ulergarria da, dirua irabazteko sortutako elkarte zela-ko⁷, baina badaude kopuru altudun beste elkarte batzuk: 1935. urtean *Círculo Easonense*-k 4.000 pezeta ordaintzen zituen, 2.200 *Real Aereo Club*-ek eta *Club*

6. MAZA ZORRILLA, E. (2001): "Sociabilidad e historiografía en la España contemporánea", *Ayer* 42, 247. or.

7. Casinoa behin eta berriz saiatu zen elkarteen zergaren ordainketatik kanpo geratzen.

Cantábrico-k, eta 1.200 pezeta *Real Sociedad*-ek. Dena den, ez ziren, kasurik arruntanak, elkarte gehienek, %70ek, 100 pezeta baino gutxiago ordaintzen baitzuten (%11k 10 pezeta baino gutxiago) eta beste 50ek (% 15ek) 300 baino gutxiago.

6. AMAIERA

Elkarte arautuen agerpena da gizarte moderno baten bereizgarririk garrantzitsuenak; sistema tradizionalan gizarte-lotura “berezko” elementuen bitartez lortzen zen, familiarren, auzoaren, lanaren eta erlijioaren bidez bereziki. Elkartek, aldiz, borondatezko atxikimendua behar dute. Gizarte integratu batek elkar-te-sare zabala eskatzen du garapen egokia izan dezan eta istilu larriak ekidin ahal izateko. Borondatezko elkartean (aisialdirako, elkar laguntzarako, kirol-taldeak, etxe erregionalak, gune politikoak, etab.) garapenak eraberritze azkarrak sortutako gizarte-desorekak leuntzen lagundu zuen, pertsona eta taldeen integrazio soziala eta politikoa erraztuz. Elkartek, bestalde, gizarte zibilaren eraketaren atal garrantzitsua osatzen dute, estatuaren nagusitasunaren aurrean edota ondoan beste eredu bat eraikiz. Borondatezko elkartek, gainera, buruzagi eta demokrazia eskolak dira, norbanako libreen arteko harremana eta lankidetzak direlako beraien oinarriak. Horrela, sistema demokratiko baten bizitasuna neurtzeko gizarte-aniztasunaren maila eta elkarte-sarearen sendotasuna, hiritarren parte hartzea, identitatea sortzeko ahalmena eta abar ditugu jorratu beharreko irizpideen artean⁸.

Egindako azterketak erakusten digu Gipuzkoak urrats garrantzitsuenak eman zituela bide horretan. Elkarteen kopuruak eta konplexutasunak gizartearen aniztasuna erakusten dute. Bada, dena den, aipatu beharreko elementu bat. Maiz erabili da Tönnies soziologoak proposatutako eredu bikoitza, komunitatea eta elkartek osatutakoa, banaketa itxi eta baztertzaila moduan. Hau da, gizarte tradizionala komunitatean oinarritzen dela eta gizarte modernoa elkarrean. Ez zen hori Tönniesen asmoa, berak ondo baitzekien erakunde modernoak elementu komunitarioen eta sozialen nahasketaren ondorio zirela (RINGER, 1995, 166); eta ez da hori gure azterketaren ondorioa. Gipuzkoan elkarte ugari sortu arren, hauetako askok gizarte tradizionalerako ezaugarriak aurkezten dituztelako.

8. MARTIN, L. P. (2000): “Redes políticas y asociaciones secundarias. Nuevos aportes a la sociología histórica”, in AA. VV. (arg.), *El siglo XX: balance y perspectivas*, Universitat de Valencia, Valencia, 107. or.

BIBLIOGRAFIA

- AIZPURU, Mikel. "Un ejemplo de anticlericalismo, irreligiosidad y práctica religiosa en la Margen Izquierda, 1914-1937", in L. CASTELLS, (arg.), *El rumor de lo cotidiano. Estudios sobre el País Vasco contemporáneo*, Bilbao: Universidad del País Vasco, 1999; pp. 259-281.
- ARREGUI, Gurutzi. "Funciones de la cofradía en las anteiglesias de Bizkaia. Siglos XVIII-XIX", in Eusko Ikaskuntza, (arg.), *Noveno Congreso de Estudios Vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1984; pp. 353-357.
- FLAQUER MONTEQUI, Rafael. "Los derechos de asociación, reunión y manifestación", in *Ayer*, 34, 1999, pp. 155-175.
- FULLANA, Pere. *El Moviment catolic a Mallorca, 1875-1912*, Barcelona: Publicacions de l'Abadía de Montserrat, 1994.
- GEAS. *España en sociedad. Las asociaciones a finales del siglo XIX*, Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 1998.
- GUEREÑA, Jean-Louis. "Fuentes para la historia de la sociabilidad en la España contemporánea", in *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989; pp. 273-305.
- LARRINAGA ZUGADI, Josu. "Asociaciones de mozerías en Bizkaia", in *Euskonews & Media*, 150, 2001.
- LUENGO, Félix. *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad*, San Sebastián: Txertoa, 1999.
- MAURICE, Jacques. "Propuestas para una historia de la sociabilidad en la España contemporánea", in *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989; pp. 133-143.
- PÉREZ DÍAZ, Víctor. *El retorno de la sociedad civil*, Madrid: Instituto de Estudios Económicos, 1987.
- POSSE y VILLELGA, José. *La vida social en el País Vasco*, Durango, 1914.
- RINGER, F. K. *EL ocaso de los mandarines alemanes: la comunidad académica alemana desde 1890-1933*, Barcelona: Pomares-Corredor, 1995.
- RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio. *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*, San Sebastián, Fundación Kutxa, 1994.
- RUEDA, Germán. "Formas de sociabilidad y condiciones de vida en la segunda mitad del siglo XIX", in R. SANCHEZ MONTERO, (arg.), *En torno al "98". España en el tránsito del siglo XIX al XX*, Huelva, Universidad de Huelva, 2000; pp. 47-90.
- RUJULA LÓPEZ, Pedro. "Entre el ocio y la política. Los casinos políticos como espacio de sociabilidad (1917-1937)", in P. RUJULA LÓPEZ, (arg.), *Entre el orden de los propietarios y los sueños de rebeldía. El Bajo Aragón y el Maestrazgo en el siglo XX*, Zaragoza: Grupo de Estudios Masinos, 1997; pp. 49-66.

Aizpuru, M.: Gipuzkoako elkarteen azterketa kuantitatiboa, 1887-1936. El asociacionismo legal...

SALOMÓN CHÉLIZ, María Pilar. "Anticlericalismo y sociabilidad católica en el tránsito del XIX al XX en Aragón", in R. SÁNCHEZ MONTERO, (arg.), *En torno al "98". España en el tránsito del siglo XIX al XX*, Universidad de Huelva, Huelva, 2000; pp. 503-511.

SOLA GUSSINYER, Pere. "Las élites y su hegemonía ideológica en el medio rural catalán (1874-1975). Algunas reflexiones sobre sus vínculos con la red asociativa y la cultura popular", in CASTILLO y R. FERNÁNDEZ, (arg.), *Campesinos, artesanos, trabajadores*, Lleida: Editorial Milenio, 2001; pp. 277-289.

ERANSKINA

GIPUZKOA	1930ko biztanleria errola	Elkarte kopurua	Sozialitate indizea
Abaltzisketa	179	0	
Aduna	428	2	214
Aia	2.391	2	1.195,5
Aizarnazabal	452	0	
Albiztur	647	2	323,5
Alegia	1.126	9	125,11111111
Alkiza	494	0	
Altza	5.425	16	339
Altzaga	207	0	
Altzo	425	1	425
Amezketza	1.067	6	177,83333333
Andoain	3.710	26	142,6923077
Anoeta	384	2	192
Antzuola	1.537	5	307,4
Arama	147	0	
Aretxabaleta	2.271	12	189,25
Arrasate	7.720	55	140,3636364
Asteasu	1.245	1	1245
Astigarraga	1.697	6	282,83333333
Ataun	2.446	7	349,4285714
Azkoitia	7.557	30	251,9
Azpeitia	7.848	41	191,4146341
Baliarrain	186	0	
Beasain	5.260	34	154,7058824
Beizama	496	0	
Belauntza	266	1	266
Berastegi	1.150	2	575
Bergara	9.307	37	251,5405405
Berrobi	378	0	
Bidania	702	2	351
Billabona	1.880	18	104,4444444
Deba	3.394	14	242,4285714
Donostia	78.432	573	136,8795812
Eibar	12.874	10	1287,4
Elduaen	340	0	
Elgeta	997	18	55,38888889
Elgoibar	5.239	27	194,037037
Erresteria	8.973	64	140,203125
Errezil	1.447	2	723,5
Eskoriatza	2.123	8	265,375
Ezkio	537	2	268,5
Gabiria	864	4	216
Gainza	309	0	

GIPUZKOA	1930ko biztanleria errolda	Elkarte kopurua	Sozialitate indizea
Gaztelu	270	0	
Getaria	1.879	9	208,7777778
Goyaz	229	1	229
Hernani	6.282	54	116,3333333
Hernalde	347	0	
Hondarribia	6.181	26	237,7307692
Ibarra	934	1	934
Idiazabal	1.326	7	189,4285714
Ikaztegieta	249	0	
Irun	17.670	124	142,5
Irura	519	8	64,875
Itsaso	386	0	
Itsasondo	734	6	122,3333333
Larraul	280	0	
Lazkao	1.588	6	264,6666667
Leaburu	477	1	477
Legazpia	1.898	13	146
Legorreta	822	6	137
Leintz-Gatzaga	394	5	78,8
Lezo	2.062	8	257,75
Lizartza	570	1	570
Mutiloa	432	1	432
Mutriku	3.832	11	348,3636364
Oiartzun	4.378	14	312,7142857
Olaberria	529	2	264,5
Oñati	6.662	26	256,2307692
Ordizia	4.423	24	184,2916667
Orendain	399	2	199,5
Orexa	183	0	
Orio	1.926	16	120,375
Ormaiztegi	684	3	228
Pasaia	7.519	67	112,2238806
Segura	1.293	7	184,7142857
Soraluze	3.007	24	125,2916667
Tolosa	12.487	132	94,59848485
Urnieta	2.339	9	259,8888889
Urretxu	1.727	12	143,9166667
Usurbil	2.042	7	291,7142857
Zaldibia	1.451	7	207,2857143
Zarautz	4.786	27	177,2592593
Zegama	1.803	11	163,9090909
Zerain	452	2	226
Zestoa	3.128	19	164,6315789
Zizurkil	1.245	4	311,25
Zumaia	3.144	25	125,76
Zumarraga	2.480	19	130,5263158